

# Eva García eta Jabi Alberdi Muztagh Atan egon dira

**Zero azpitik 40 graduko tenperaturak pairatu behar izan dituzte Artarraiko bi kide hauek Muztagh Ataren gailurrera igotzeko. 7.500 metro baino gehiago ditu mendi horrek eta Txinako Himalayan dago, Tibetik aldentuta, Kirzigistanen ondoan. Bidaia gazi-gozoa izan da, tartean arazo fisikoak eta kontratatutako gidariaren erabaki okerrak jasan dituztelako.**

Muztagh Ata, edo izotzen gailurraren aita (7.546 m.). Haren magalean uigur etnia bizi da, kirguiz taldekoak zehazki, Txinarekin gatazka larria duen herria. Eva eta Jabi ermuarrak abuztuan egon dira bertan, mendizaletasunak erakarrita, eta hiru arrazoi direla-eta aukeratu zuten Muztagh Ata mendia: ez dagoelako masifikatuta, altua delako eta ez delako oso teknikoa, fisikoa baizik.

Sei mendizalez osatutako taldean ibili dira, gidariak gain, eta arazoak berehala hasi ziren. Evari janariak egin zion kalte lehen egunetan; Jabiri, aldiz, hotzak egin zion min. “Nire kasuan agentziaren errua izan zen —dio Jabik—. Gure isolatzaileak ez eramateko esan ziguten, euren utziko zizkigutela. Baina horiek oso kalitate eskaseko-

ak ziren eta hotza barruraino sartu zitzaian. Horren ordez, guztion materiala eramateko agindu ziguten”.

Hala ere, hogeiei egun egon ziren mendian —kanpamentutik kanpamentura joateko beharrezko epea—, gorputza aklimatatzeko eta materiala apurka-apurka igotzen joateko. “Gora eta behera ibili behar izatea oso neketsua da —diote—, baina ezinbestekoa da gorputza eta arnas-keta ohitzen joateko”.

Gailurrera igo behar zuten egunean, Jabik kanpamentuan geratu behar izan zuen, hotzez hil beharrean. Baina Evak eta 4 taldekideek 18 ordu egin zituzten oinez. Zer dela eta? Mendi horretara igotzeko hiru kanpamentu daude, baina haien gidariak erabaki zuen hirugarrenera ez joatea: bigarrenetik gailurrera jotzea zuzenean. “Erabaki eskasa izan zen. Ni ondo nindoan —dio Evak—, baina gure taldeko pare bat, besteok emandako laguntza barik, arazo oso larriak izango zituzten. Lurrera jausten ziren, logurarenkin, nekeak jota”.



## Taldearen arrakasta

Onartzen dute sekula ez dutela horrenbesteko hotza jasan, eta 5 kilo inguru galdu ditu bakoitzak, baina bidaia alde oso positiboak ere izan ditu. “Eva bakarrik igo da gailurrera baina gu biok talde bat osatzen dugu, beraz, arrakasta lortu dugu. Gainera, bidaia gogorra izan arren, asko ikasi dugu”, diote.

Bukatutakoan, Kasgarren deskantsatu zuten egun bat eta, jarraian, egun eta erdi eman zuten Pekinen, tartean, Txinako Harresia ikusten.

Dagoeneko hurrengo espedizioari bueltak ematen dihardute eta, beharbada, Aconcagua (6.960m.) izan daiteke helmuga berria. Jabi

bertan egon zen duela urte batzuk eta, lau mendizale joan arren, bera bakarrik igo zen tontorreraino. “Evarekin joateak eta biok tontorreraino heltzeak ilusioa egingo lidake”, aitortzen du. Hori bai, “gidari barik”, argitzen dute.

8.000 metroko mendia egitea ere gustatuko litzaieke, baina aklimatazio egokia egin ahal izateko 50 bat egun dira beharrezkoak. “Zaila egiten zaigu lanean horrenbeste egun libre lortu ahal izatea, eta gainera orain izan dugun aurrekontuaren hirukoitza beharko genuke, dirutza. Gaur egun, zoritxarrez, babesleak topatzea ez da baxter erraza”.

Dorleta Vidal



**Caperos**

Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitaratekoak  
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

**Egaña**

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN  
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08